

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2010	R17/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Administrazio batek eskuduntzaren onespena</i>

R 17/2011 Ebazpena

30/2010 Espedientea

Gasteizen, 2011ko maiatzaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide direla, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

ERAKUNDEAK (IFK (HIZKIA) NNNNNNN) 2005eko laugarren hiruhilekoari dagokion BEZa itzultzeko eskatu zion eskumeneko administrazioari, eta hortik sortu da gatazka Estatuko Administrazioaren edo Bizkaiko Foru Aldundiaren artean. Arbitraje Batzorde honek tramitatzen du 30/2012 espediente zenbakia duen gatazka hori.

I. AURREKARIAK

1. Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikulua 3. idatz-zatiaren babespean, ERAKUNDEAK (IFK (HIZKIA) NNNNNNNN), aurrerantzean “erakundea”, gatazka hau planteatu zuen 2010eko azaroaren 25eko data daraman idazkiaren bitartez, erregistroan egun horretan bertan sartu zena. Idazki horretan jarraian laburbiltzen diren aurrekariak ageri ziren:

- 2005eko ekitaldiaren hasieran, erakundearen egoitza fiskala Madrilen zegoen eta Bizkaiara lekualdatu zuten, 2005eko abenduaren 7an emandako eskritura publikoen bidez.
- 2004ko ekitaldian zehar, erakundearen jardueren bolumena ez zen sei milioi eurora iritsi, ezta bere banaketa proportzionala ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2010	R17/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Administrazio batek eskuduntzaren onespena</i>

- Erakundeak 2005eko lehen hiru hiruhilekoei zagozkion BEZaren aitorpenak aurkeztu zizkion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.

- 2005eko laugarren hiruhilekoa Bizkaiko egoitzan egonda bukatu zuelarik, erakundeak hiruhileko horri zegokion aitorpena aurkeztu zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, 2005eko abenduaren 7ra arte gauzatutako eragiketak barne. Horietan itzuli beharreko ZENBATEKOA1-ko kuota bat ageri zen. Era berean, beste aitorpen bat aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean, data horretatik aurrera egindako eragiketak ageri zirelarik. Tartean, ZENBATEKOA2-ko kuota bat ingresatu behar zela ageri zen.

- Bai Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta bai Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuten kopuru hori itzultzeko eskumena gaitzetsi zuten, itzultzeko eskumena beste Administrazioak duela adieraziz.

2. 2011ko martxoaren 28an erakundeak planteatutako eskumen-gatazka tramitatzea onetsi zuen Arbitraje Batzorde honek. Jarraian, dagokion espedientea igortzeko eskatu zien interesatutako Administrazioei.

3. 2011ko apirilaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiaren espedientea jaso zen, Foru Erakundeko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari teknikari nagusiak igorritako 2011ko apirilaren 18ko idazkiaren bitartez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honen xedea 2005eko ekitaldi hasieraren eta aurtengo abenduaren 7aren arteko aldiari dagokion BEZaren saldoa (ZENBATEKOA1) itzultzeko eskumena zein Administrazioek duen zehaztean datza.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2010	R17/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Administrazio batek eskuduntzaren onespena</i>

2. Alegazioen idazkian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko epaia aipatzen du, 378/2009 errekurtsua (okertu egin da eta hilaren 9ko data ematen dio). Errekurtsu gisa emandako epaia da, Arbitraje Batzorde honen ebazpen baten aurka. Hau bezalako gatazka bat izan zen hura ere, Auzitegi Gorenak haren jarrera baieztatzen duelarik. Idazkian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aipatutako epaiaren ondorengo paragrafoak transkribatzen ditu, Auzitegi Gorenak arlo honetan duen doktrina biltzen delarik:

“Subjektu pasibo batek eusten dituen BEZaren kuotak lekualdatzea eta bere egoitza fiskala lurralde jakin batean zueneko aitorten eta likidazioak egoitza berriari dagokion Zerga Administrazioari aurkeztea Ekonomia Itunean aurreikusitako ordain-arazpen eskumena nahastea litzateke. Izan ere, “ordain-arazpen” hori gutxituko luke iraganean eutsitako kuoten konpentsazioak (...).

Balio erantsiaren gaineko Zerga berehalako sortzapeneko zerga izanda, subjektu pasiboak eskumena duen Administrazio bakoitzean aurkezten dituen aitortenetan edo aldi bateko likidazioetan egoitza aldatu bitartean eratorritako BEZak adierazi beharko ditu, momentu horretara arte ordaindu diren eta kentzeko eskubidea ematen duten BEZak kenduta. Horien arteko desberdintasun “garbia” izango da Administrazio bakoitzaren eskumenekoa izango litzatekeen ordain-arazpenaren zenbatekoa zehaztuko duena (...).”

Aipatutako epaian xedatutakoaren arabera, dirua itzultzeko eskubidea duen erakundeak itzulketa-eskaera bat aurkez diezaioke hori egiteko eskumena duen Administrazioari. Azken horrek onartu egin beharko du, eskatutako itzulketa hori Legearekin bat datorrela egiaztatzeko duen ahalmena kaltetu gabe

3. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazi duenez, “begi-bistakoa da kasu honetan ere Auzitegi Gorenak 2010eko ekainaren 10ean emandako epai horretan ezarritako doktrina aplika daitekeela eta beraz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere gain hartuko du ERAKUNDEAK (IFK (HIZKIA) NNNNNNN)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2010	R17/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Administrazio batek eskuduntzaren onespena</i>

Administrazio horren aurrean eskatutako 2005eko laugarren hiruhilekoari dagokion BEZa itzultzeko eskumena”. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak akats bat egiten du hor. Izan ere, erakundeak itzultzeko eskatutako BEZaren saldoa 2005eko ekitaldi hasieratik erakundea euskal lurraldera lekualdatu bitarteko (2005eko abenduaren 7ra arteko) aldiari dagokio.

4. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arbitraje Batzordeari eskatu dio “bi Administrazioen arteko gatazkaren tramitazio eza konpontzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2005eko ekitaldiko laugarren hiruhilekoari dagokion BEZa itzultzeko eskumena bere gain hartu duelako”. Hori ikusita, eta adierazitako akatsa kenduta, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.3 artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoa aintzat hartuz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskatutakoa onesten da eta ez da gatazka hau tramitatutako.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak ondorengoa

ERABAKI DU

ERAKUNDEA (IFK (HIZKIA) NNNNNNNN) erakundeak planteatutako gatazka ez tramitatzea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2005eko ekitaldi hasieratik urte bereko abenduaren 7ra bitarteko aldiari dagokion BEZaren saldoa, ZENBATEKOA1 eurokoa, itzultzeko eskumena bere gain hartu duelako.